

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

IRUÑA

BIZIKIDETZA PLANA

2013ko ekaina

BIZIKIDETZA PLANA	4
1. OINARRIZKO PRINTZPIOAK	5
2. HELBURU OROKORRAK.....	6
3. BIZIKIDETZA BATZORDEA	7
3.1. Osaera.	7
3.2. Bizikidetza batzordearen eginkizunak.....	7
3.3. Bilerak zenbatean behin egingen diren.....	8
Bizikidetza batzordea bilduko da diziplina gaiengatik beharrezkoa den bakoitzean.	8
3.4. Bizikidetzako arduradunaren eginkizunak.	8
4. JARDUERA ILDOAK	8
5. JARDUERA PROTOKOLOAK INDARKERIA MOTA DESBERDINEN AURREAN.....	9
6. IRAKASLEEN ETA ADMINISTRAZIOKO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK	9
6.1. Irakasleen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen eskubideak	9
6.2. Irakasleen eginbeharrak	10
6.3. Administrazioko eta Zerbitzuetako langileen eginbeharrak.....	11
7. IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK	11
7.1. Ikasleen eskubideak.....	11
7.2. Ikasleen eginbeharrak	12
8. IKASLEEK PARTE HARTZEKO ORGANOAK.....	14
8.1. Ordezkariek eta ordezkariordeak.....	14
8.2. Ordezkarien batzordea	15
8.3. Ikasleen bilera orokorrak edo batzarrak.....	16
8.4. Ikasleen elkarteak	16
9. BIZIKIDETZA ARAUDIA	16
9.1. Bizikidetza nahasten duten portaerak zuzentzeko printzipio orokorrak.....	16
9.2. Bizikidetzaren aurkako portaerak eta hezkuntza neurriak aplikatzea	17
9.3. Bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak eta aplikatu beharreko hezkuntza neurriak.....	18
10. ESKOLETARA BERTARATZEA	24
10.1. Irakasleen ez-agertzeak.....	24
10.2. Eskoletara bertaratzea eta etengabeko ebaluazioa.....	24
10.3. Eskoletara bertaratzea eta ikaspostuen erreserba	24
10.4. Justifika daitezkeen hutsegiteak eta egiaztagiriak.....	25
10.5. Egiaztagiriak emateko epea eta tokia.....	25
10.6. Hutsegiteen zenbaketa	26
11. FAMILIEN PARTE-HARTZEA BEREN SEME-ALABA ADINGABEEN HIZKUNTZAK IKASTEKO PROZESUAN	26
11.1. Familien inplikazioa eta konpromisoa	26
11.2. Aiten, amen edo legezko ordezkarien eskubideak.	26
11.3. Aiten, amen edo legezko ordezkarien erantzukizunak	27
12. XEDAPEN GEHIGARRIAK	27
12.1. Erantzukizun penala	27
12.2. Erantzukizun zibila	27

13. EBALUAZIOA28

BIZIKIDETZA PLANA

1. SARRERA

Hizkuntza Eskola Ofizial baten jardueraren xedea da ikasleek eskura ditzaten programek edo ikasketa planek maila bakoitzerako ezartzen dituzten atzerriko hizkuntzen gaineko ezagutza linguistiko, pragmatiko eta funtzionalak, baita prozesu horrek eskatzen dituen trebetasunak edo gaitasunak ere. Helburu hori lortzeko beharrezkoa da ikaskuntza erraztuko duen lan giro ordenatu, koherente eta koordinatu bat eta, orobat, diziplina eta helburu komun bat erdietsi nahi delako kontzientzia, gizabanakoari eta taldeari ezarritako helburuak lortzea ahalbidetuko dieten azturak eta jokabideak sortzeko oinarri gisa. Oro har, horiek izan beharko lirateke berez bizikidetzarako arauen oinarriak, ulertuta bizikidetz dela helburu komunak lortzeko elkarrekin lan egiteko borondatea, lortu nahi diren balioak eta horiek lortzeko prozedurak eta arauak adostasunez ezarriz.

Hezkuntzak eta, zehatzago, hizkuntzen irakaskuntzak honako gizabanakoak lortu nahi ditu: nor bere gizartearen kultura eta ikasi nahi duten hizkuntza mintzatzen den gizartearen kultura ezagututa, ekiteko irizpide argiak eta elkarlanean aritzeko borondatea dutenak, helburu komunak lortzeko xedearekin.

Irakaskuntza mota honek aparteko ezaugarriak ditu eta, ondorioz, erkidegoko kideen artean ezartzen diren harreman pertsonalak oso bereziak dira. Alde batetik, batez ere didaktikoa eta akademikoa den alderdia dugu. Norabide horretan joan ohi dira irakasleen eta departamentu didaktikoen ahaleginak eta interesak, jarduera didaktikoak ikaskuntzarako eraginkorrak izan daitezen, baina baita ikasleenak ere, beren ikaskuntza jarraitzeko beharrezko maila eta ezagutzak eskatzen baitituzte hizkuntza bat eskuratzeko lana erraztuko duen motibazio gisa. Bestetik, ikastetxe mota honetara joaten diren ikasleen ezaugarriei dagokienez, taldea nahiko heterogeneoa izaten da eta oso modu desberdinean erantzuten du estimuluaren eta ikaskuntzaren aurrean: zentzu horretan, izan ditzakegu beren ikaskuntzaz arduratzen diren ikasle helduak zein bere ezagutzak garatzeko interesa duen ikaslearen rolaekin batera ikaskuntza horretan legezko arduradunak sartzen dituzten ikasle adingabeak.

Azkenik, uste dugu diziplina funtsezko elementua dela ikaskuntza lortzeko. Guztiei eragiten dien alderdi bat da: ikasleei, arauak errespetatu daitezen interes berezia baitute, baita arauak betetzeko ardura ere; irakasleei zein administrazioko eta zerbitzuetako langileei; eta, hala dagokionean, ikasle adingabeen legezko arduradunei, diziplina bete dadin zaindu behar baitute.

Horregatik da hain garrantzitsua hezkuntza ekintzaren printzipioak ezartzea eskola osatzen duten hiru sektore horien bizikidetzarako eta, bereziki, ikasleen eta irakasleen arteko harremanetarako.

Bizikidetz Planean arautuko dira ikasleen arteko harremanak, irakasleen artekoak, administrazioko eta zerbitzuetako langileen artekoak, talde horien guztien artekoak eta, azkenik, irakasleen eta ikasleen legezko tutoreen artekoak.

Agiri honek ez du arau testu bat izan nahi. Aitzitik, ezinbestekoak diren alderdiak nabarmendu nahi ditu, hezkuntza bizitzaren funtsezko alde hori hobetzeko. Gida praktikoa eta zehatz bat izan nahi du, bizikidetzarako helburu komunak eta gutxieneko arauak finkatzeko, gatazka egoerak hauteman eta prebenitzeko tresnak eta mekanismoak eta gatazkak ebazteko prozedurak

ezartzeko eta, azkenik, eragile desberdinei zuzenduriko oinarrizko gomendioak definitzeko, horrela, bizikidetza biziagoa izan dadin eta Hizkuntza Eskola Ofizial honetako helburu orokorretan ardaztua.

Bizikidetza Plan hau abenduaren 16ko 204/2010 Foru Aginduan (NAO, 13.a) eta Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako bizikidetzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuan oinarritzen da (NAO, 116.a).

2. BIZIKIDETZAREN EGOERA IKASTETXEAN

Esan dezakegu Iruñeko HEOn ez daudela, oro har, bizikidetza arazoak. Ikastetxeko giroa ona da eta hezkuntza erkidegoko sektore guztien arteko harreman sistema zuzena eta errespetuzkoa da.

Ikasleak

Hizkuntza Eskola Ofizialetan ematen diren hizkuntzen ikasketa espezializatuak araubide bereziko ikasketen barnean daude. Hartara, Hizkuntza Eskola Ofizialak ez dira gainerako ikastetxeak bezalakoak, ezaugarri bereziak baitituzte, besteak beste:

- Ikasketa araubidea, ez baita derrigorrezkoa.
- Ikasleek ikastetxean ematen duten denbora minimoa da eta eskuarki eskolaren iraupenari dagokio, hau da, egunean ordu bat, edo bi ordu eta laurdeneko saioak txandakako egunetan.
- Taldeak heterogeneoak dira ikasleen adinari eta esperientziari dagokienez.
- Ematen den irakasgaia bakarra da – hautatutako hizkuntza.
- Ikasleak gehien bat helduak direnez, ikasleen eta irakasleen arteko harremana errespetuzkoa da. Ikasleek ezagutu eta errespetatzen dituzte Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan jasotako bizikidetza arauak. Dagozkien organoetan parte hartzen dute eta taldeetako ordezkariak eta Eskola Kontseiluan dituzten ordezkariak hautatzen dituzte.

Hezkuntza esparruan, parte-hartze eta lankidetzaren giroa nagusitzen da ikasgelaren barneko taldeko lanean eta departamentuek edo zuzendaritza taldeak antolatutako jarduerak osagarrietan.

Irakasleak

Irakasleek elkar errespetatzen dute. Taldean koordinaturik egiten da lana eta erabakiak adostasunez hartzen dira.

Prestakuntzaren esparruan, parte-hartzea handia da kanpoko prestakuntza jardueretan eta hezkuntza ezagutzak eta esperientziak trukatzeko jardueretan.

Administrazioko eta zerbitzuetako langileak

Administrazioko eta zerbitzuetako langileen arteko eta langile horien eta irakasleen arteko harremanak errespetuzkoak dira.

1. OINARRIZKO PRINTZPIOAK

1. Honako hauek dira ikasleen eskubide eta eginbeharren esparru arau-emaelearen oinarrizko printzipioak:

a) Ikastetxeetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesua lagunduko duen giroa eta harreman positiboetarako giroa ezartzeko betebeharra, erantzukizunean heztearen kontzeptuan oinarrituta.

b) Hezkuntza erkidego osoaren parte-hartzea eta konpromisoa.

c) Gatazkei aurrea hartzea eta modu baketsuan ebaztea.

d) Pertsona guztien benetako berdintasuna zailtzen duten traba guztiak kentzea eta emakumezkoen eta gizonezkoen eskubideen eta aukeren erabateko berdintasuna sustatzea.

e) Tratu berdintasunaren printzipioa txertatzea, saihestuz jokabide sexistengatik, arrazistengatik, xenofoboengatik edo erlijioaren kontraengatik edo horiei loturiko estereotipo sozialetan oinarritutako jokabideengatik bazterkeria edo desperekotasuna izatea.

2. Hezkuntza erkidegoko kide guztiei dagokie arduratzea eta behar diren neurriak hartzea ikastetxeetako bizikidetza bermatzeko eta ikasleen eskubideak zuzen baliatzen direla eta eginbeharrak zehatz-mehatz betetzen direla bermatzeko, Bizikidetza Plan honetan ezarritakoari jarraikiz. Hori helburu:

a) Ikastetxeko zuzendaritzak giro egokia bultzatuko du ikasteko, ikasleek gaitasunak eskuratzeko eta bizikidetzarako, eta gatazkak sortzen direnean, saiatuko da auzia elkarrizketaren bidez, akordioen bidez, bitartekaritzaren bidez edo gatazkak modu baketsuan ebazteko beste teknika batzuen bidez konpontzen. Bestalde, indarreko legediaren arabera bidezko diren hezkuntza neurriak ezarriko dizkie ikasleei.

b) Eskola Kontseiluak eta klaustroak ikastetxean bizikidetza sustatzeko behar diren neurriak eta ekimenak proposatuko dituzte eta horiek garatzen lagunduko dute.

c) Eskola Kontseiluak diziplina gatazken ebazpenak ezagutu beharko ditu, indarreko legediaren arabera izatea zainduko du eta, erreklamazioak aurkeztuz gero, berrikusten ahalko ditu.

d) Klaustroak ezagutu beharko du, orobat, diziplina gatazken ebazpena eta zuzenketa neurrien ezarpena, eta indarreko araudiaren arabera izan daitezen zainduko du.

e) Irakasleek ikastetxeko jarduerak errespetuzko giroan egin daitezela lagunduko dute, ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eta gaitasunak eskuratzeko prozesua errazteko, eta horretarako beren agintea erabiliko dute gelan zein ikastetxean. Era berean, lehenengo esku-hartzearen arduraduna izanen da sortzen diren diziplina gatazketan edo arazoetan eta konpontzeko behar diren neurriak aplikatuko ditu bere erantzukizunaren eremuan.

f) Ikasleek erantzukizunez jokatu dute beren eskubideak baliatu eta eginbeharrak betetzeko orduan.

3. Hezkuntza Departamentuak babes eta laguntza juridikoa bermatuko die hala zuzendaritza taldekoei, nola irakasleei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei, beren lanbide jardueran gatazkak sortzen direnean.

2. HELBURU OROKORRAK

a) Bizikidetza giroa etengabe hobetzea, ezinbesteko elementu gisa eskola errendimendua eta errendimendu akademikoa onak izan daitezela.

b) Hezkuntza erkidego osoa sentsibilizatzea bizikidetza positiboa sustatzen duten ekintzak planifikatu eta garatu behar diren gaitasunak.

c) Gatazkak modu baketsuan ebatz daitezzen sustatzea, hausnarketaren eta ikaskuntzaren bidez eta gatazkak elkarrizketaren bidez ebazteko teknikak eta estrategiak erabiliz, entzute aktiboa eta alde guztiendako positiboak izanen diren irtenbide adostuak bilatzen lagunduz eta komunikaziorako bideak ezarriz.

d) Hezkuntza erkidegoko kide guztien arteko errespetua, onarpena eta tratu ona sustatzea. Tratu on hori pertsonen arteko harreman mota guztietan eman behar da.

e) Ikasgelako eta ikastetxeko arauak parte-hartze sistema baten bidez prestatu daitezzen sustatzea, baita errespetatu daitezzen ere.

f) Lankidetzarako bideak ezartzea ikastetxearekin lotura duten kanpoko eragile edo entitateekin.

3. BIZIKIDETZA BATZORDEA

3.1. Osaera.

Zuzendariak izendatuko du bizikidetza batzordea. Ondokoek osatuko dute:

a) Zuzendariak: M^a Teresa Casero

b) Bizikidetzako arduradunak: Yolanda López (ikasketaburua)

c) Andoni Alba irakasleak

d) José Vallejo ikasleak

3.2. Bizikidetza batzordearen eginkizunak.

a) Bizikidetza Plana eta haren urteko zehaztapenak parte-hartze sistema baten bidez prestatzeko prozesua diseinatu eta hartaz arduratzea.

b) Bizikidetza Plana eta haren urteko zehaztapenak prestatzeko proposamenak jaso eta sortzea.

c) Bizikidetzaren egoera ezagutzeko beharrezkoak diren aldizkako ikerketak programatu, bultzatu eta egitea eta, orobat, Bizikidetza Planaren urteroko ebaluazioa egitea, dagozkion hobekuntzak proposatuz.

d) Hezkuntza erkidegoari Bizikidetza Planaren aplikazioari buruz informatzea.

e) Urteko zehaztapenaren memoria prestatzea.

f) Bizikidetza araudiaren berrikuspenetan laguntzea.

g) Ikastetxean bizikidetza araudia aplikatzeko jardueren gaineko informazioa biltzea eta, dagokionean, ekarpenak egitea.

h) Hezkuntza erkidegoari aholku ematea bizikidetzaren arloan, eta irakasleentzako zein hezkuntza erkidegoko gainerako kideendako gai horren gaineko prestakuntza jarduerak sustatzea.

i) Zuzendaritzari aholku ematea bizikidetzaren aurkako edo bizikidetzarako oso kaltegarriak diren jokabideen aurrean hezkuntza neurriak aplikatzearen gaineko erabakiak hartzeko.

j) Bitartekaritza taldeak sortzea eta haien funtzionamenduaren gaineko ardura hartzea.

- k) Bitartekaritza formaleko prozesuak antolatzea, Plan honetako bizikidetza araudian ezarritakoaren arabera.

3.3. Bilerak zenbatean behin egingen diren.

Bizikidetza batzordea bilduko da diziplina gaiengatik beharrezkoa den bakoitzean.

3.4. Bizikidetzako arduradunaren eginkizunak.

- a) Bizikidetza batzordea eta haren ekintzak eta proiektuak dinamizatzea.
- b) Bizikidetza Planaren prestaketan, ezarpenean, ebaluazioan eta eguneratzean parte hartzea, baita plan hori garatu, abiatu, ebaluatu eta urteroko zehaztapenak egiteko beharrezkoak diren hezkuntza erkidegoa inplikatze mekanismoetan ere.
- c) Ikasleen prestakuntza eta parte-hartze aktiboa, gatazkak prebenitzeko eta ebazteko estrategiak, eta hezkuntza erkidegoko eragileen inplikazioa artikulatzea, Bizikidetza Planaren esparruan.
- d) Irakasleak esparru honetan presta daitezten bultzatzea, bizikidetzako arduradun gisa bere prestakuntza pertsonala eguneratzea, eta ikastetxeko beste talde batzuek bizikidetza arloan eskuratu beharreko prestakuntzaz arduratzea.
- e) Zuzendariari lagundu eta aholku ematea bizikidetza araudia aplikatzeko orduan.
- f) Honako dokumentuen ardura hartzea: ikastetxeko Bizikidetza Plana, haren urteko zehaztapenak (arduradunaren lan plangintza sartuko da bertan) eta urteko memoria.

4. JARDUERA ILDOAK

Ikasleak

- a) Ikasgelaren barnean lankidetzaren giroa sortzea, parte hartzeko, elkar ezagutzeko eta taldean elkarrekin lan egiteko jardueren, eta jokoen bitartez.
- b) Ikasgelako espazioa parte-hartzea laguntzeko moduan kudeatzea.
- c) Ikasgelatik kanpoko jarduerak osagarriak sustatzea, ikasleen arteko eta ikasleen eta irakaslearen arteko harremanak laguntzeko eta, orobat, ikasten ari diren hizkuntzarekin harremana izan dezaten bestelako testuinguruetan.
- d) Lehiaketak eta sariak ematen dituzten bestelako jarduerak partizipatiboak antolatzea.
- e) Ikasleek erabiltzeko guneak sortzea, ikasleek ikastetxea sozializatzeko toki gisa ikus dezaten laguntzeko.
- f) Informazio bideak zabaltzea garrantzitsuak diren alderdi orotan.

Irakasleak

- a) Lantaldeak eta berdinen arteko prestakuntza saioak sustatzea.
- b) Materialak eta informazioa trukatu ditzaten eta taldean lan egin dezaten erraztea, atazak murrizteko helburuarekin.
- c) Kide guztiei dagozkien alderdien gaineko informazioa ematea.
- d) Kexei eta iradokizunei erantzutea.

Administrazioko eta zerbitzuetako langileak

- a) Administrazioko eta zerbitzuetako langileen prestakuntza erraztea.
- b) Gizarte trebetasunen eta gatazkak ebazteko estrategien garapena sustatzea.
- c) Lankidetzaren guneak sortzea zuzendaritza taldearekin.
- d) Bizikidetzaren ekitaldiak antolatzea irakasleekin.

5. JARDUERA PROTOKOLOAK INDARKERIA MOTA DESBERDINEN AURREAN

Plan honetako bizikidetzaren araudiko 11.2 eta 11.3 puntuak begiratu.

6. IRAKASLEEN ETA ADMINISTRAZIOKO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

6.1. Irakasleen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen eskubideak

- a) Langileei oro har aitortutako lan eskubide guztiak.
- b) Tratu zuzena jasotzeko eskubidea, hezkuntza erkidegoko kide guztien eta, oro har, herritar guztien aldetik.
- c) Norberaren ordutegia errespetatua izateko eskubidea.
- d) Arrazoi sindikal, profesional edo akademikoengatik biltzeko, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzei jarraikiz.
- e) HEOren duen jarduerarekin loturiko ikastetxeko materiala eta instalazioak erabiltzeko.
- f) Ikastetxearekin loturiko bere intereseko zeinahi bilera ofizialetara behar bezalako aurrerapenarekin deitua izateko edo horren berri jasotzeko.
- g) Bere lanpostuarekin loturiko zeinahi informazio edo dokumentazio eskuratzeko: HEO honetako langileen kasuan, EAO, NAO, urteko funtzionamendu arauak, IHP, etab.
- h) Irakasleen, departamentuburuaren edo zuzendaritza taldeko kideen aldetik informazioa jasotzeko, pertsonalki axola dion eta HEO honetan egiten duen jarduerarekin lotuta dagoen zeinahi gai edo araudiri buruz.
- i) Ikastetxeko kudeaketan aktiboki parte hartzeko, pertsonalki, gobernu edo parte-hartze organo bateko kide bada, edo ordezkari bidez.
- j) Klaustorako edo Eskola Kontseilurako bilera deitzeko, betiere kideen heren batek (1/3) egiten badu eskaera.
- k) Bilera deitzeko zuzendaritza taldeko edozein kidearekin, 48 ordu lehenagotik, betiere gaiaren interesa dutenen heren batek (1/3) eskatzen badu. Deialdia ikastetxeko beharren mende egonen da.
- l) Gobernu organoetara egoki irizitako iradokizunak, ideiak eta arazoak azaltzeko eta entzuna izateko.
- m) Irakasleek katedra askatasuna izan behar dute, baina Espainia mailako eta Foru Komunitateko araudiei jarraikiz.
- n) Irakasleek eskubidea dute Urteko Programazio Orokorren betetze mailari buruzko memorian banakako ordutegitik kanpo egindako jardueraren osagarrien zerrenda agertzeko.

o) Langileei, ikasleei eta barne funtzionamenduari buruz fitxategietan agertzen den informazio guztia isilpekoa dela jotzeko.

p) Biltzeko:

p.1) Irakasleen bilerak: klaustroko edozein kidek deitu ditzake, HEOrekin lotura zuzena duten gaiak jorratzeko. Deialdiak sinatua egon behar du eta jendaurrean jarri beharko da gutxienez 48 ordu lehenago. Bilera hori irakasleek ikastetxean nahitaez egon beharreko orduetan egin daiteke, baina ez irakastaldietan. Edonola ere, irakasle bakar bat ere ezin izanen da klasetik atera bilera pertsonal batera joateko.

p.2) Administrazioako eta zerbitzuetako langileen bilerak: administrazioako eta zerbitzuetako langileak HEOko esparruan bil daitezke, ez bada eskolaren ohiko funtzionamendua galarazten. Bilera horiek idazkariari eta/edo zuzendariari jakinaraziko zaizkio 48 ordu lehenago.

6.2. Irakasleen eginbeharrak

a) Atxikita dagoen hizkuntza/k objektibotasunez irakastea, dogmakeriarik eta doktrinamendurik gabe.

b) Ikaskuntza beharrei erantzutea, idatzizko eta ahozko probetan eskatzen diren hizkuntzaren alderdi guztiak barne hartuz.

c) Ikasleak estimulatzea ikasgelan aktiboki parte har dezaten.

d) Dituen taldeen jarraipena egitea tutore gisa.

e) Ikasleen bertaratze hutsegiteak kontrolatzea.

f) Indarreko araudiak eta/edo kide den departamentuak ezarritako irizpideak errespetatuz ebaluatzea ikasleak.

g) Azterketa ofizialak, libreak eta sailkatze probak prestatzea, departamentuan erabakitako banaketaren arabera.

h) Azterketa idatzi ofizialak, libreak eta sailkatze probak kudeatzea, departamentuan erabakitako banaketaren arabera.

i) Ikasle ofizialen (propioak zein kanpokoak), libreen eta sailkatze proben ahozko azterketak egitea, departamentuaren erabakiaren arabera.

j) Zuzentzea bere ikasle ofizialen azterketa idatziak, baita ikasleei ematen zaien beste zeinahi ataza mota ere, etengabeko ebaluazioaren jarraipena egiteko. Era berean, ikasle libreen eta sailkatzen proben azterketa idatziak zuzentzea, departamentuan erabakitako banaketaren arabera.

k) Departamentuburuak, departamentua ordezkatzuz, azterketekin loturik agintzen dizkion bestelako atazak egitea, hala nola, notak argitaratzea, azterketen emaitzen estatistikak egitea, etab.

l) Bere ikasle ofizialen, ikasle libreen eta/edo sailkatze proben aktak bete eta departamentuburuari ematea, ezarritako epeak errespetatuz.

m) Banakako ordutegia errespetatzea eta berandu etorriko bada edo ez bada etorriko ikasketaburuari lehenbailehen jakinaraztea, baita zein ordutan edo datatan itzuliko den ere.

- n) Bizikidetzaren arauak errespetatzea eta elkartzarekin laguntzea ordena, garbiketa, instalazioak eta eskola bizitzaren martxa ona mantentzen.
- o) Eskola erkidegoko gainerako kideak errespetatzea.
- p) Eskoletan antzemandako edozein gorabehera ikasketaburuari eta/edo departamentuburuari jakinaraztea.
- q) Nahitaezkoak diren bileretara joatea.
- r) Eskola Kontseiluan, klaustroan eta departamentuko bileretan hartutako erabakiak errespetatu eta betetzea.
- s) Zaintza orduetan esleitutako atazak betetzea, betiere bere banakako ordutegian balitu, urteko funtzionamendu arauetan ezarritakoa errespetatuz.
- t) Departamentuan aktiboki parte hartzea, haren antolaketa hobetzeko ekarpenak eginez.
- u) Irakaslanarekin eta ikastetxeko funtzionamenduarekin loturiko araudi guztiari buruzko informazioa jasotzea.

6.3. Administrazio eta Zerbitzuetako langileen eginbeharrak

- a) Gure hezkuntza erkidegoa osatzen duten pertsona guztiak errespetatzea.
- b) HEO hau eta, bereziki, lanbide jardueran erabiltzen duen materiala mantendu eta ongi erabil dadin laguntzea.
- c) 48 ordu lehenago eskatzea laneko baimenak eta lizentziak.
- d) Nagusien aginduak betetzea zerbitzuaren berezko gaitetan.
- e) Gainerako estamentuekin batera lan egitea ikastetxeak ongi funtzionatu dezan.
- f) Zuzendariari eta/edo idazkariari jakinaraztea ikastetxean gertatzen den zeinahi irregulartasun.
- g) Banakako ordutegia errespetatzea eta berandu etorriko bada edo ez bada etorriko zuzendariari lehenbailehen jakinaraztea, baita zein ordutan edo datatan itzuliko den ere.

7. IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

7.1. Ikasleen eskubideak.

Ikasleek honako oinarritzko eskubide hauek dituzte:

- a) Funtsezko eskubide eta askatasunen errespetuan eta bizikidetzaren printzipio demokratikoetan oinarritutako prestakuntza jasotzeko eskubidea.
- b) Errespetatua izateko eskubidea. Ikasleek eskubidea dute beren nortasuna, osotasuna eta duintasun pertsonala errespetatua izateko, baita beren kontzientzia askatasuna eta beren sinesmen erlijioso eta moralak ere, eskubide horiek Nazio Batuen Biltzar Orokorrak 1948ko abenduaren 10ean hartutako 217 A (III) Ebazpenaren bidez onartu zen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan aitortuak baitaude. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:
 - b.1) Intimitatearen errespetua.
 - b.2) Kontzientzia askatasunaren errespetua, hala nola norberaren sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralen errespetua.

b.3) Pertsona guztien aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetua, estereotipoetatik eta kanpoko beste baldintza batzuetatik haratago.

b.4) Eraso fisikoen, emozionalen, moralen edo bestelakoen kontrako babesa.

b.5) Bizikidetzaren positiboko giroa, jarduerak normal egiteko aukera ematen duena eta errespetua eta elkartasuna sustatzen dituena.

b.6) Konfidentzialtasuna datu pertsonalen tratamenduan. Irakaskuntzaren eginkizunetarako beharrezkoak izateagatik ikastetxeak biltzen dituen ikasleen datu pertsonalen tratamenduan datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen dituzten arau tekniko eta antolaketakoak aplikatuko dira. Datuak lagatzeari dagokionez, datu pertsonalak babesteari buruzko legediari jarraituko zaio. Nolanahi ere, ikastetxeak eskatzen duen informazioa irakaskuntza eta orientazio lanetarako behar-beharrezkoa dena izanen da, eta hezkuntzatik kanpoko beste erabilera batzuetarako ezin izanen da erabili, non ez dagoen familiaren edo ikaslearen, adinez nagusia bada, berariazko baimena.

c) Objektibotasunez ebaluatua izateko eskubidea. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

c.1) Programazio didaktikoen oinarriko alderdiak ezagutzea: helburuak, edukiak, ebaluazio prozedurak eta ebaluaziorako, kalifikaziorako eta aurrera egiteko irizpideak.

c.2) Bere ikaskuntza prozesuaren bilakaeraren gaineko informazioa jasotzea, baita horren arabera hartzen diren erabakien berri ere.

c.3) Lortutako kalifikazioen eta hartutako erabakien gaineko argibideak eskatu eta erreklamazioak aurkezteko aukera izatea, hala ebaluazio partzialetan nola azkenekoetan, betiere Hezkuntza Departamentuak ezartzen duenari jarraikiz.

d) Ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea.

Ikasle guztiek ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea dute, dela banaka dela taldeka, ikastetxeak ezartzen dituen baldintzetan. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

d.1) Ikastetxean dituzten ordezkarien bidez edo legez eratuta dauden ikasleen elkarten bidez parte hartzea.

d.2) Adierazpen askatasuna. Bere iritzia errespetuz adierazteko aukera, baldin eta iritzi horiek Giza Eskubideen eta balio demokratikoen esparruaren barrenean badaude eta ikastetxearen hezkuntza proiektua eta ikastetxearen izaera errespetatzen badituzte.

d.3) Ikastetxean biltzea.

d.4) Elkarteak osatzea. Ikasleek elkarrekin osatzeko eskubidea dute, indarreko legediari jarraikiz.

d.5) Adiskidetze eta bitartekaritza bideak erabiltzea gatazkak konpontzeko hezkuntza metodo gisa.

d.6) Ikasleek ikastetxeetako gobernu organoetan parte hartzea indarreko araudiari jarraikiz.

e) Hizkuntzetako prestakuntza jasotzea aukera berdintasunean.

7.2. Ikasleen eginbeharrak

Hona hemen ikaslearen oinarriko eginbeharrak:

a) Ikastea, ikasleen oinarriko eginbearra baita. Eginbehar honek zera dakar:

- a.1) Eskolako nahitaezko jarduera guztietara joatea eta aktiboki parte hartzea.
- a.2) Ikastetxeko jardueren ordutegia errespetatzea eta garaiz iristea, jarduerak ikastetxearen instalazioen barrenean izan edo kanpoan.
- a.3) Estudiatzea eta ahalegintzea, norberaren gaitasunen arabera garapenik handiena lortzeko.
 - b) Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana eta agintea errespetatzea eta hezkuntza erkidegokoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea. Eginbehar honek zera dakar:
 - b.1) Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana eta agintea errespetatzea eta hezkuntza erkidegokoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea, hala hezitzaile gisa ari direnean, nola ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendu arauak eta bizikidetzaren arauak betetzeko kontrol lanetan ari direnean.
 - b.2) Irakasleek agintzen dituzten lanak egitea.
 - b.3) Ikastetxearen izaera eta hezkuntza proiektua errespetatzea.
 - c) Ikastetxeko bizikidetzak hobetzen eta, ikasgelan eta ikastetxean, ikasketetarako giro egokia lortzen parte hartzea eta modu positiboan laguntzea. Eginbehar honek zera dakar:
 - c.1) Ikastetxeko bizikidetzarako arauak eta antolaketa eta funtzionamendu arauak betetzea.
 - c.2) Parte hartzea eta hezkuntza erkidegoko gainerako kide guztiei modu aktiboan eta positiboan laguntzea hezkuntza jarduera guztiak errazago egin daitezten.
 - c.3) Ikasgelan eta ikastetxean ikasteko giro egokia sortzen eta mantentzen laguntzea irakasleei.
 - c.4) Bere ahalmenen arabera, sor litezkeen gatazkei aurrea hartzen eta gatazkek modu baketsuan eta zuzen konpontzen parte hartzea.
 - c.5) Behar dutenei laguntza eskaintzea eta ematea.
 - c.6) Pertsona ahulenen alde eta eskolan jazarpena jasan dezaketenen alde aktiboki parte hartzea, edozein balizko biktima errespetatuz, defendatuz eta integratuz.
 - c.7) Ikastetxeko eta, kasua bada, ikasgelako bizikidetzak arauak eta funtzionamendu arauak prestatzen parte hartzea, bere eskumenen esparruan.
 - d) Pertsonak errespetatzea. Eginbehar honek zera dakar:
 - d.1) Besteenganako harremanetan errespetuz jokatzeko eta hori bizikidetzarako oinarritzeko arautzat hartzea.
 - d.2) Bere ikaskide guztiei ahalbidea eta erraztasunak ematea Bizikidetzak Plan honetan ezarritako eskubide eta eginbehar guztiak balia ditzaten, batez ere ikasteko eskubidea.
 - d.3) Jarrera baketsua izatea eta sustatzea, mota guztietako indarkeriak errefusatzeko.
 - d.4) Kontzientzia askatasuna eta sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralak errespetatzea, jende guztiaren eskubidea den aldetik, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak eta Espainiako Konstituzioak babestu eta aitortua; orobat, hezkuntza erkidegokoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kide guztien duintasun pertsonala, osotasuna eta intimitatea errespetatzea, jaiolera, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela kausa litezkeen bazterketa guztiak saihestuz.

d.5) Hezkuntza erkidegokoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kide guztien ondasunak errespetatzea.

e) Ikastetxera behar bezala jantzita eta norberaren higiena zainduta joatea. Eginbehar honek zera dakar:

e.1) Erabiltzen diren jantziak ikastetxearen izaeraren arabekoak izatea, ikasteko tokia baita. Jantziak hezkuntzako lanak eta jarduerak egoki eta ongi egiteko modukoak izanen dira eta ikaslea identifikatzeko trabarik ez dute jarriko.

e.2) Norberaren higiena eta garbiketarako ohitura egokiak izatea.

f) Ikastetxeko instalazioak, ekipamendua, altzariak eta materialak zaintzea eta egoki erabiltzea, hala nola ikastetxearen inguruetakoa eta eskola garraioetakoa. Eginbehar honek zera dakar:

f.1) Ikastetxeko instalazioak eta ekipamendua, larrialdietako sistemak eta hezkuntza jardueran erabiltzen diren materialak errespetatu eta zaintzea.

f.2) Ingurumena errespetatzea, ikastetxean garbitasuna zainduz, ura eta energia egoki erabiliz, hondakinak bereiziz, etab.

f.3) Ikastetxearen inguruak errespetatzea, espaloiak, atariak, fatxadak, hormak eta abar garbi eta txukun mantenduz.

8. IKASLEEK PARTE HARTZEKO ORGANOAK

8.1. Ordezkariak eta ordezkariordeak

Ikastalde bakoitzean, ikasturte akademiko bakoitzaren azaroko lehen hamabostaldian, ikasgelako ordezkaria eta ordezkariordea aukeratu dira. Ikasketaburuak antolatu eta deituko ditu hauteskundeak. Hauteskundeak egin baino lehen, ikastalde bakoitzeko irakasleek ordezkarien eginkizunei buruzko informazioa emanen dute.

Hauteskunde horietarako hautagaitzak aurkezten ahalko dira ikastaldearen aurrean. Hautagaitzarik ez badago ere, hauteskundeak eginen dira eta egiten diren unean ikasgelan ez dauden ikasleak ere hautatzen ahalko dira.

Botoa pertsonala eta sekretua izanen da. Boto gehien lortzen dituen ikaslea ordezkari izanen da, eta boto kopuruari begiratuta hurrengoak, ordezkariorde. Horietako edozein kargutarako berdinketarik gertatuz gero, bigarren itzulia eginen da. Bakarrik aurkeztuko dira berdinduta dauden ikasleak, salbu eta ikasleren batek hautagaitzari uko eginen balio.

Hautatutako pertsonak arrazoizko uko egitea aurkezten badu ikasketaburuaren aurrean, zerrendan ondoren geratu den pertsona hautatuko da kargurako. Ez balego, beste bozketa bat eginen da.

Behin ordezkariak eta ordezkariordeak izendatu ondoren, ordezkoen zerrenda bat osatuko da botoak jaso baina hautatuak izan ez diren ikasleekin, jasotako boto kopuruaren arabera ordenatua, eritasunagatik, ez etortzeagatik edo bajagatik ordezkaria edo ordezkariordea ordeztu behar balira ere.

Hautaketaren akta idatziko da. Ikasketaburuak emanen ditu akta eredia eta boto txartelak eta ikastaldean ausaz hautatutako bi ikasle izanen dira hauteskunde buru eta idazkari. Hauteskundeak eskola orduen barnean eginen dira. Ikastaldeko irakasle arduradunak hautaketa hasi aurretik nola eginen den azalduko du. Era berean, aktetako datu guztiak bete ditzaten zainduko du eta administraritzan emanen ditu.

Ordezkarrien eta ordezkariordeen eginkizunak eta eskumenak:

- a) Ikasleek Eskola Kontseiluan dituzten ordezkariak organo horretan jorratzen diren gaiei eta hartzen diren erabakiei buruz ematen duten informazioa ikaskideei helaraztea. Horretarako, ordezkariak ohiz kanpoko izaeraz eskola orduen zati bat erabili ahal izanen du, irakasleari jakinarazi eta gero.
- b) Ordezkariei Eskola Kontseiluan jorratu beharreko gaiak proposatzea, baleude.
- c) Irakasleari jakinaraztea taldean dagoen zeinahi kezka edo proposamen.
- d) Era berean, taldean dagoen zeinahi kezka edo proposamen, lehenik, departamentuburuari eta, ondoren, ikasketaburuari, jakinaraztea, betiere irakasle-tutoreari egindako jakinarazpenak ez badu emaitzarik izan.
- e) Bere ikastaldeko ikasleei laguntzea diziplina arazoak edo irakasleen, ikasketaburuaren, zuzendariaaren kontrako erreklamazioak ebazteko tramiteetan.
- f) Ordezkarrien batzordera joatea eta berehala ikaskideei bertan jorratutako gaiei buruz informatzea.
- g) Ikaskideei puntualtasunez helaraztea zuzendaritza taldeak emandako informazioa.

8.2. Ordezkarrien batzordea

Ikastaldeko ordezkari guztiek eta ikasleek Eskola Kontseiluan dituzten ordezkariak osatzen dute.

Ordezkariren batek joaterik ez badu, ordezkariordeak ordeztu dezake.

Batzordea bilduko da gutxienez ordezkarien heren batek (1/3) eta/edo ikasleek Eskola Kontseiluan dituzten ordezkarien heren batek (1/3) eskatzen duenean. Herenak dezimala badu, ondoko azpiko zenbaki osora biribilduko da.

Ordezkarrien batzordearen eginkizunak

- a) Ikastalde bakoitzeko arazoak ikasleek Eskola Kontseiluan dituzten ordezkariak jakinaraztea.
- b) Eskola Kontseiluan jorratutako gaiei buruzko informazioa jasotzea.
- c) HEOn funtzionamenduko gai zehatzei buruzko edo irakasleen iritziei buruzko proposamenak edo txostenak prestatzea Eskola Kontseiluarentzat eta zuzendariarentzat edo ikasketaburuarentzat, norberaren ekimenez edo aipatutako organoek eskatuta.
- d) Ikasleei dagozkien mota orotako ekimen edo jardueren buruzko ideiak eta iradokizunak jasotzea eta informatzea eta eztabaidak sustatzea.
- e) Ikasle taldeen edo elkarten proposamenak aztertzea eta babestu edo lagunduko dituzten erabakitzea.
- f) Proposamenak prestatzea departamentuentzat eta klaustroarentzat, funtzionamendu akademikoa, pedagogikoa edo didaktikoa hobetzeko.
- g) Ordezkarrien batzordeak bere barnean komisiok hauta ditzake gai jakin batzuk klaustroari edo departamentuei aurkezteko.
- h) Batzordeak gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazi beharko dio zuzendaritzari bileraren data, bilera hori egiteko beharrezkoa badu areto bat gaitu edo erreserbatzea.

- i) Bilera bakoitzeko akta idatziko da eta, hartara, batzordean buru bat (moderatzailea izanen da) eta idazkari bat izendatuko dira. Akta horiek eskola esparruko zeinahi kideren eskura egon beharko dute.

8.3. Ikasleen bilera orokorrak edo batzarrak

Ikasleek Eskola Kontseiluan dituzten ordezkariak eta/edo ordezkarien batzordeak, gehiengoak erabakita, ikasleen bilera orokorra deitu dezakete, zuzendaritzarekin ordutegi egokiena eta non egin adostu ondoren.

Era berean, multzo jakin bateko ikasleen batzar partzialak deitu ditzakete: ikasmaita edo hizkuntzaren arabera, adibidez.

Batzarrak eskola orduetan egin daitezke. Deialdia eta gai zerrenda ikastetxeko iragarki ohol orokorrean edo horretarako tokietan paratu beharko dira, gutxienez, 48 ordu lehenago.

8.4. Ikasleen elkarteak

Eskubidea dute bilerak egiteko instalazio propioak izateko edo, halakorik ez bada, zuzendariak edo ikasketaburuak bileretarako gela bat utziko die. Egiten dituzten jardueri buruzko informazioa eman behar diote Eskola Kontseiluari, beren ordezkarien bitartez.

9. BIZIKIDETZA ARAUDIA

9.1. Bizikidetza nahasten duten portaerak zuzentzeko printzipio orokorrak

A. Zuzendu beharreko portaerak.

Abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, zuzendu beharreko portaerak dira bizikidetza arauak urratzen dituztenak, eta betiere:

- a) Eskola ordutegiaren eta eskola eremuaren barrenean jarduerak egin bitarte gertatzen badira.
- b) Eskola eremutik edo ordutegitik kanpora gertatzen badira ere, ikasleen eginbeharren eta eskubideen urraketaekin zuzeneko harremana baldin badute, Bizikidetza Plan honetan ezarritakoaren arabera.
- c) Ikastetxeak antolatutako jarduera osagarriak edo eskolaz kanpoko jarduerak egin bitarte gertatzen badira.

B. Neurriak aplikatzeko irizpideak.

1. Irakasle guztiek, beren agintea erabiliz, ikasteko behar den eskolako giro ona erraztu behar dute, eta horregatik, ikastetxeak antolatutako hezkuntza jarduerak egiten diren bitartean, bizikidetzaren aurkakoak diren ikasleen portaerei aurrea hartu behar diete, eta ikasleei ohartarazi eta portaera zuzendu.
2. Zuzendu beharreko portaeretan aplikatu beharreko neurri guztiak egintzen erantzulea den ikaslearentzat hezigarriak izanen dira. Neurri horiek, gainera, ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatu beharko dute, eta erreferentzia bizikidetza hobetzea izanen da.
3. Neurri horiek aplikatuz gero, ikasle guztiek eta, bidezkoa denean, aitak, amak edo legezko ordezkariak eskubidea izanen dute entzunak izateko eta beren burua defendatzeko alegazioak aurkezteko, Bizikidetza Plan honetan ezarritakoaren arabera.
4. Nolanahi ere, honako alderdi hauek kontuan hartu beharko dira:

a) Neurriek ikasleen hezkuntza prozesuak aurrera segitzea bermatu beharko dute, haien prestakuntza akademikoa galarazi gabe.

b) Ez da osotasun fisikoaren eta duintasun pertsonalaren kontrako neurririk aplikatuko.

c) Aplikatzen diren neurriak ikaslearen portaerarekin proportzionalak izanen dira.

d) Neurriak aplikatzean ikaslearen adina eta egoera pertsonalak, familiarrak eta sozialak hartu beharko dira kontuan. Horretarako, irakasleek inguruabar horiei buruz behar duten informazioa biltzen ahalko dute eta, hala badagokio, familiari edo erakunde publiko eskudunei aholkatzen ahalko diete behar diren neurriak har ditzaten.

e) Aplikatzen den neurriarekin batera kalteen konponketa ere ezarriko da, batez ere kalte pertsonalak izan direnean.

5. Edozein hezkuntza neurri aplikatu aurretik, zilegi izanen da ohartarazpena, kargu-hartzea eta zuzentzeko errekerimendua egitea, ahoz eta/edo idatziz, baita portaera desegokiari eta haren ondorioei buruzko gogoeta bat ere.

6. Neurri jakin bat aplikatzea egokia ote den erabakitzeko, irakasle arduradunek eta zuzendaritzak ondoko hauengana jotzen ahalko dute aholku eske: ikastetxeko bizikidetzaren batzordea, Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzarako Aholkularitza, Hezkuntzako Ikuskatzailatza eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.

9.2. Bizikidetzaren aurkako portaerak eta hezkuntza neurriak aplikatzea

A. Bizikidetzaren aurkako portaerak.

1. Oro har, bizikidetzaren aurkako portaerak dira ikastetxeko ohiko bizikidetzarako bereziki kaltegarriak ez direnak. Nolanahi ere, honako hauek hartuko dira bizikidetzaren aurkako portaeratzat:

a) Eskolak bitartean ikaskideek ikasteko duten eginbeharraz eta eskubideaz baliatzea eragozten duten portaerak.

b) Azterketetan, probetan edo ariketetan kopiatzea edo beste ikasle batzuei kopiatzeko bidea ematea.

c) Pertsonen duintasunaren eta legez ezarritako eskubide demokratikoen aurkako adierazpen berariazkoak egitea, edo hezkuntza proiektuaren eta ikastetxearen beraren izaeraren aurkakoak.

d) Irakaslearen agintearen aurkako errespetu faltak, eta ikastetxeko langileei desobeditzea, beren eginkizunetan ari direla.

e) Hezkuntza erkidegokoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideak desegoki eta errespetu gabe tratatzea.

f) Ikastetxeko langileei gezurrak esatea edo nahita informazio faltsua ematea, horrek hezkuntza erkidegokoa den edo haren zerbitzura jarduten duen kideren bati kalte larria eragiten ez badio.

g) Klasean mugikorra erabiltzea, salbuespeneko kasuetan izan ezik (medikuak edo guardia daukaten langileak, etab.), alde aurretik irakasleak baimena eman badu.

h) Ikastetxeko guneak, materiala eta ekipamendua erabiltzea baimenik gabe, edo hezkuntzakoak ez diren helburuetarako edo baimendutakoak ez diren beste batzuetarako.

- i) Identifikatzea eragozten duten jantziak eramatea.
- j) Norberaren higieua eta garbiketa behin eta berriz ez zaintzea, nahita.
- k) Ikastetxeko instalazio edo materialak, eskolako garraioak edo bisitatzen diren lekuetako ondasun edo instalazioak nahita hondatzea, baita hezkuntza erkidegokoa den edo haren zerbitzura jarduten duen edozein kideren gauzak ere, kaltea arina denean.
- l) Ikastetxeko instalazioen, ekipamenduen, materialen edo inguruen garbiketa galaraztea, hala nola ikastetxearekin bisitatzen diren lekuen. Pintadak egitea bereziki hartuko da kontuan.
- n) Ikastetxearen barrenean edo ikastetxeak antolatzen dituen jarduerak egin bitartean erretzea edo edari alkoholikoa edatea. Era berean, eskola eremutik kanpo tabakoaren aurkako araudia ez betetzea.
- o) Eskola jardueraren ohiko garapena nahasten duen beste edozein jokabide oker, ikastetxeko bizikidetzarako bereziki kaltegarria den portaera ez bada.

B. Bizikidetzaren aurkako portaeretan aplikatu beharreko hezkuntza neurriak.

1. Bizikidetzaren araudian jasotako izanik, bizikidetzaren aurkako portaeretan aplikatu daitezkeen hezkuntza neurriak hauek dira:
 - a) Hitzeko kargu-hartzea. Idatziz jasoko da.
 - b) Eskoletara agertzeko debekua, 3 saiotarako gehienez ere.
 - c) Kalifikazio negatiboa azterketan, proban edo ariketan, 1b puntu (9.2.A.) aipatutako portaera gertatzen bada.

C. Bizikidetzaren aurkako portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedura.

1. Bizikidetzaren aurkako portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzea ikastetxeko zuzendariari dagokio, edo horren eskuordetza duen organoari edo irakasleari, zeinak informazioa jasoko baitu ikastetxeak ezartzen duen prozeduraren bidez.
2. Ekintzen egileen berri izan eta hogeita eskola egun igarota hezkuntza neurriak aplikatu ez bada, ezin izanen da horrelakorik aplikatu.
3. Bizikidetzaren aurkako portaeretan aurrean aplikatutako hezkuntza neurrien aurka ezin da inolako erreklamaziorik egin administrazio bidean.

9.3. Bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak eta aplikatu beharreko hezkuntza neurriak.

A. Bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak.

1. Oro har, bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak dira ikastetxeko ohiko bizikidetzaren larriki nahasten dutenak. Nolanahi ere, honako hauek hartuko dira bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaeratzat:
 - a) Irakasleen edo haien agintearen aurkako edo hezkuntza erkidegokoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen aurkako irainak, kalumniak, ofentsak, isekak edo umiliazioak, haien aurkako indarkeria fisiko edo bestelakoa eta, halaber, haienganako jazarpen eta hitzeko edo egiteko jokabideak, bereziki alderdi sexista, arrazakeriazkoa edo xenofobia badute edo pertsonen sinesmen edo konbikzio moralen aurkakoak badira, edo dituzten ezaugarri pertsonalen, ekonomikoen, sozialen edo hezkuntzakoengatik ahulenak diren pertsonen aurka egiten badira.

- b) Eskolaldiko edo hezkuntzako jardueren barreneko testuak, irudiak, soinuak eta abar grabatzea zuzendaritzak baimentzen ez dituen erabileretarako, baita pertsonen bizitza pribatuarekin zerikusia duen edozein eszena grabatzea ere.
- c) Aurreko atalean adierazitakoak baliabide elektronikoen bidez edo beste baliabide batzuen bidez hedatzea.
- d) Ikastetxeko instalazioak, materialak edo dokumentuak, eskolako garraio bideak edo bisitatzeko diren lekuetako ondasun edo instalazioak nahita hondatzea, baita hezkuntza erkidegokoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten gainerako kideen gauzak ere, kaltea larria denean.
- e) Asmo txarrez eginak izateagatik, hezkuntza erkidegokoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen osotasun fisikoarentzat arriskugarriak izan daitezkeen portaerak.
- f) Ikastetxeko langileei gezurrak esatea edo informazio faltsua ematea nahita, horrek hezkuntza erkidegokoa den edo haren zerbitzura jarduten duen kideren bati kalte larria eragiten badio.
- g) Ikastetxeko gauzak edo edozein pertsonaren gauzak lapurtzea.
- h) Ekitaldi akademikoetan beste pertsona baten itxurak egitea eta agiri akademikoak faltsutzea edo lapurtzea. Bereziki larritzat joko da azterketen ereduak edo erantzunen kopiak lapurtzea, eta haiek hedatzea, edukitzea, erostea edo saltzea.
- i) Bizikidetzarako bereziki kaltegarria den portaera baten jakitun edo lekuko izatea eta zuzendaritza taldeari ez jakinaraztea.
- j) Obedientzia ukatzeko portaerak, bereziki ezarritako hezkuntza neurriak betetzen ez direnean.
- k) Konstituzioan jasotako eskubide eta askatasunen aurkakoak diren edo terrorismoaren apologiatzat hartzen diren pintadak edo idatzizko beste adierazpen batzuk egitea edo halako kartelak jartzea.
- l) Drogak kontsumitzea edo banatzea, tabakoa erretzea edo edari alkoholduenak edatea behin eta berriz ikastetxeko gunetan, eskolako garraio bideetan edo ikastetxeak antolatzen dituen jardueretan, edo portaera horiek hartzea bultzatzea.
- m) Edozein motatako armak edo lehergailuak eramatea.
- n) Behin eta berriz bizikidetzaren aurkako portaerak izatea.
- o) Ikastetxeko jardueren ohiko garapena zuzenean galaraztera bideratutako edozein egintza edo jokabide oker.

B. Inguruabar aringarriak eta astungarriak.

1. Hezkuntza neurriak aplikatzeko orduan, honako inguruabar hauek aringarritzat har daitezke:

- a) Portaera desegokia berez onartzea eta, hala badagokio, kaltea konpontzea.
- b) Nahita egina ez izatea.
- c) Barkamena eskatzea iraina gertatu zen gune eta esparruan.
- d) Eragindako kaltea konpentsatzeko zerbaite eskaintzea.
- e) Lehenagotik hezkuntza neurriak aplikatu ez izana.

f) Arau-hausleak bitartekaritza prozesuetan parte hartzeko borondatea izatea, horrelakoetarako aukera baldin badago.

2. Hezkuntza neurriak aplikatzeko orduan, honako inguruabar hauek astungarritzat har daitezke:

a) Premeditazioa.

b) Ikastetxeko bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan berreslea izatea ikasturte berean.

c) Hezkuntza erkidegokoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideei kalte egiten dieten portaerak.

d) Ikaskide gazteagoei edo bereziki ahulak diren ikaskideei kalte egiten dieten portaerak.

e) Jaiolekuagatik, sexuagatik, arrazagatik, sinesmen ideologiko edo erlijiosoengatik, desgaitasun fisiko, psikiko edo sentzorialagatik edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialengatik bereizkeria dakarten ekintzak.

f) Hezkuntza erkidegokoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten gainerako kideen eskubideak urratzen dituzten jarduketak taldeka egitera bultzatzea edo animatzea.

g) Bizikidetzarako bereziki kaltegarria den edozein jarduketaren publizitatea egitea.

h) Ikastetxeari edo hezkuntza erkidegokoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideei eragindako kalteak bereziki handiak izatea.

i) Zuzentzea merezi duen edozein portaera grabatzea eta/edo hedatzea.

C. Bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan aplikatu beharreko hezkuntza neurriak.

1. Bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan aplikatu beharreko hezkuntza neurriak ondokoak dira:

a) Eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez. Era berean, aldi horretan programatuta dauden ebaluazio proba objektiboak egiteko eskubidea galduko da.

2. Ohiz kanpoko neurri gisa, bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaeren aurrean ikastetxeak matrikula deuseztatzea erabaki dezake, araudi honek oinarri duen 47/2010 Foru Dekretuko zazpigarren xedapen gehigarrian adierazten den bezala.

D. Bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko ohiko prozedura.

1. Bereziki kaltegarriak diren portaera guztiak eta haien ondorioak ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi behar zaizkio. Zuzendariak edo, hala bada, haren eskuordetza hartzen duen irakasleak behar adina ikerketa edo jarduketa egiten ahalko ditu ekintza horrela tipifikatzeko, hala nola erantzuleak identifikatzeko eta ohiko prozedurari hasiera emateko, ekintzaren berri izan eta biharamunetik hasita hiru eskola eguneko epean gehienez.

2. Aurreko puntuan finkatzen den hiru eskola eguneko epea bukatuta, ustezko erantzulea edo erantzuleak identifikatu ez bad(ir)a, zuzendariak edo, hala bada, haren eskuordetza duen irakasleak, bizikidetzara araudian xedatutakoarekin bat, egoki iruditzen zaizkion jarduketekin segitzen ahalko du haiek identifikatzeko eta prozedura hasi ahal izateko.

3. Ohiko prozedura hasiko da hasteko dokumentua ikasleari, haren amari edo aitari edo legezko ordezkariari (ikasle adingabeen kasuan) eta instruktoreari (zuzendaritzak izendatutako irakasle taldeko kidea) ematearekin batera. Bizikidetzarako bereziki kaltegarria den portaera preskribatuko da dokumentu horren entrega ez bada egiten egintzen berri izan eta hirurogei eskola eguneko epearen barrenean.

4. Aplikatzen diren kautelazko neurriak, halakorik bada, prozedura bukatu arte mantentzen ahalko dira. Ikasleak kautelazko neurrien pean ematen duen denbora aplikatzen den hezkuntza neurrian ezartzen den denboratik deskontatuko da.

5. Ohiko prozedurari hasiera emateko dokumentua zuzendaritzak egin beharko du eta honako alderdi hauek jasoko ditu:

a) Neurri horiek aplikatzeko eskumena ematen dion araudiaren aipamen zehatza.

b) Prozedura irekitzea eragin duten egintzak eta frogak.

c) Zuzendu beharreko portaera, hautsitako arauak, data eta tokia.

d) Inplikaturako ikaslea.

e) Tramitazioaren ardura duen instruktorea, ikastetxeak bizikidetzara araudian ezartzen duen sistemaren bidez klaustruko kideen artean hautatua.

f) Aplikaturako kautelazko neurriak, halakorik bada.

g) Inguruabar astungarrien eta aringarrien azalpena, horrelakorik baldin bada.

h) Aplikatu beharreko hezkuntza neurriak, horiek hasteko eta bukatzeko egunak eta aplikatzeko baliabideak.

i) Alegazioak egiteko prozedura eta epeak, adieraziz alegaziorik aurkezten ez bada, egintzak frogatuzat joko direla eta prozedura hasteko dokumentua prozedurari bukaera emateko ebazpentzat hartuko dela.

j) Eskola Kontseiluan erreklamazioak aurkezteko prozedura eta epea.

6. Aurreko puntuan aipatzen den dokumentuan, zuzendaritzak proposatzen ahalko du prozeduraren tramitazioa Bizikidetzara Plan honetan ezarri bezala egitea, kontuan harturik aurretik hartan ezarritako salbuespenak.

7. Alegazioak, zuzendariari zuzenduak, ikastetxean aurkeztuko dira, idatziz, prozedura hasteko jakinarazpenaren biharamunetik hasita gehienez bi eskola eguneko epearen barruan. Idazki horretan, halaber, instruktorea errefusatzeko eskaera arrazoitua egiten ahalko da.

8. Errefusatzen den instruktoreak adieraziko du alegaturako zergatia baden edo ez. Errefusatzeko idazkia aurkeztu eta hurrengo eskola egunean, zuzendariak horren gaineko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du.

9. Ezarritako epean alegaziorik aurkezten ez bada, egintzak frogatuzat hartuko dira eta prozedura hasteko dokumentua prozedura bukatzeko ebazpentzat hartuko da.

E. Alegazioak aurkezten diren kasuetan, ohiko prozeduraren tramitazioaren jarraipena eta prozeduraren ebazpena.

1. Ikasleak, haren gurasoek edo legezko ordezkariak ezarritako epean alegazioak aurkeztuz gero, instruktoreak, bere agintea erabiliz, egoki iruditzen zaizkion jarduketak eginen ditu egintzak argitzeko. Alegazioak aurkeztu eta bost eskola eguneko epean gehienez, eta

alegazioak kontuan harturik, ebazpen proposamena prestatu eta zuzendariari aurkeztuko dio. Proposamen horretan alderdi hauek jasoko dira:

- a) Frogatutzat hartzen diren egintzak eta hori egiaztatzen duten frogak.
- b) Zuzendu beharreko portaera, hautsitako bizikidetzak arauak, data eta tokia.
- c) Inplikaturako ikaslea.
- d) Aplikaturako kautelazko neurriak, halakorik bada.
- e) Inguruabar astungarrien eta aringarrien azalpena, horrelakorik baldin bada.
- f) Aplikatu beharreko hezkuntza neurrien proposamena.

Bost eskola eguneko epea luzatzen ahalko da, inktoreak hori justifikatzeko arrazoiak daudela uste badu.

2. Ebazpen proposamena aurkeztu eta biharamunetik hasita bi eskola eguneko epean gehienez, zuzendariak prozedura bukatzeko ebazpena emanen du. Bi eskola eguneko epea luzatzen ahalko da, zuzendaritzak hori justifikatzeko arrazoiak daudela uste badu. Ebazpen horretan honako hauek adieraziko dira gutxienez:

- a) Neurri horiek aplikatzeko eskumena ematen dion araudiaren aipamen zehatza.
- b) Frogaturako ekintzak eta zuzendu beharreko portaerak.
- c) Inguruabar astungarriak eta aringarriak, horrelakorik baldin badago.
- d) Aplikatu beharreko hezkuntza neurriak eta, hala badagokio, horiek hasteko eta bukatzeko egunak eta aplikatzeko baliabideak.
- e) Eskola Kontseiluan erreklamazioak aurkezteko prozedura eta epea.

3. Ohiko prozeduraren ebazpenaren berri ikasleari eta bere gurasoei edo legezko ordezkariari emanen zaie, idatzi baten bidez, non adierazi beharko baita ebazpen horrek administrazio bidea amaitzen duela eta haren aurka, aukeran, 22. artikuluan aipatzen den erreklamazioa edo bidezko errekurtsio juridikozionala aurkezteko ahalko dela, baita zein organotan aurkeztu behar den eta zein epetan.

4. Ikastetxeak, bizikidetzak araudian, bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedura ezarriko du, betiere Bizikidetzak Plan honen 9.5.1.B. artikuluan ezarritakoa bermatuz.

5. Nolanahi ere, ohiko prozeduraren tramitazioa hogeita hamar eskola eguneko epean bukatu beharko da, prozeduraren hasierako jakinarazpenetik hasita interesdunari edo, hala badagokio, familiari jakinarazten zaion arte. Bestela, prozedura iraungitzat hartuko da.

F. Erreklamazioak.

1. Prozeduraren gaineko ebazpena jakinarazita, ikasleak, adinez nagusia bada, edo haren gurasoek edo legezko ordezkariak zuzendariaren erabakiaren berrikuspena eskatzen ahalko diote Eskola Kontseiluari, jakinarazpena jaso eta bi eskola eguneko epearen barruan.

2. Hartutako erabakia berrikusteko, Eskola Kontseiluaren bilkura berezia deituko da. Prozedurari bukaera emateko ebazpena eta erreklamazioa ikusita, kontseiluak zuzendariari proposatuko dio aplikaturako neurria berresteko edo aldatu edo baliogabetzeko.

3. Kontseiluaren proposamena hamar eskola eguneko epean egin beharko da, erreklamazioa jaso eta biharamunetik hasita. Eskola Kontseiluaren proposamena erabakia aldatu edo baliogabetzekoa baldin bada, proposamena jaso eta biharamunetik bi eskola eguneko epean, zuzendariak Hezkuntza Departamentuari hartutako erabakiaren legezatasunari buruzko txostena eskatzen ahalko dio. Txosten hori hamar eskola eguneko epean egin beharko da. Zuzendariak bere ebazpena eman behar du eta erreklamazio egileari idatziz jakinarazi behar dio.

4. Jakinarazpen horretan adierazi beharko da ebazpenaren aurka bidezko den errekurtsioa, zein organo judizialean jarri behar den eta zein epetan.

G. Prozedura adostua.

1. Ikastetxeko zuzendariak arau-haustea egin duen ikasleari eta, hala badagokio, haren gurasoei edo legezko ordezkariari aukera emanen die prozedura adostuaren bidea hartzeko, inguruabar hauek betetzen badira:

a) Bereziki kaltegarria den portaera aitortzea.

b) Kalteturik izanez gero, haiei barkamena eskatzea, iraina gertatu zen gunea eta esparruan.

c) Ikastetxeak aintzat hartzen dituen beste inguruabar batzuk, bizikidetza araudian jaso beharrekoak.

2. Honako kasu hauetan ezin izanen da espedientea prozedura adostuaren bidez tramitatu:

a) Inplikaturako ikasleari horrelako beste prozedura bat tramitatu baldin bazaio ikasturte berean.

b) Ikasturte berean, ikasleari aplikatu zaion hezkuntza neurriren bat ez bada bete.

c) Ikastetxeak zehazten dituen beste kasu batzuetan, bizikidetza araudian jaso beharrekoak.

3. Prozedura adostuaren bidez tramitatzeko aukera ohiko prozedura hasteko dokumentuan jasoko da. Dokumentu horretan interesdunei bilera bat egitea proposatuko zaie, behar den deialdiaren bidez.

4. Bilera hori ikastetxeko zuzendaritzarekin izanen da eta helburua izanen da prozedura adostuaren abantailak azaltzea. Bilera horrexetan, ikasleak edo haren gurasoek erabakiko dute prozedura adostua onartu edo baztertzen duten.

5. Bilerara agertzen ez badira edo aukerabide hori baztertzen badute, hezkuntza neurriaren aplikazioa araudi honetan ezarritako ohiko prozeduraren bidez tramitatu da, eta berriz ere hasiko da 7. puntuan adierazitako epeen kontaketa. Horrelakoetan, alegazioak aurkezteko eta instruktorea errefusatzeko epea bilera egiteko finkaturako egunaren biharamunetik hasiko da.

6. Prozedura adostua tramitatzeko modua eta prozeduran parte hartzen duten alderdiak ikastetxe bakoitzak erabakiko ditu bere bizikidetza araudian. Nolanahi ere, aplikatzen den neurria arinagoa izanen da prozedura hasteko dokumentuan ezartzen dena baino.

7. Prozedura adostua tramitatuz gero, zuzendaritzak bizikidetzarako konpromisoa idatzi beharko du. Konpromiso horretan, gutxienez, agertuko dira ikasleak eta gurasoek edo legezko ordezkariak konpromisoa onartzen dutela, aplikaturako hezkuntza neurria eta hura betetzeko baliabideak. Konpromisoa hiru eskola eguneko epean adostu eta sinatu beharko da, bilera egin eta biharamunetik aurrera. Sinadurak bukaera emanen dio prozedura adostuari.

8. Nolanahi ere, prozedura adostuaren bidezko tramitazioa hogeit hamar eguneko epean bukatu beharko da, prozeduraren hasiera jakinarazten denetik hasita. Bestela, prozedura iraungitzat hartuko da.

9. Prozedura tramitatu bitartean, akordioak porrot egiten badu, araudi honetan ezarritako ohiko prozeduraren bidez segituko da, eta 7. puntutik aurrera adierazitako epeen kontakteta hasiko da. Horrelakoetan, alegazioak aurkeztu eta instruktorea errefusatzeko epea porrota gertatu eta biharamunetik hasiko da.

H. Dokumentazioa artxibatzea eta erregistroko idatzoharra deuseztatzea.

1. Bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak direla eta, ikasleei hezkuntza neurriak aplikatzeko irekitzen zaizkien prozeduren tramitazio aldiko dokumentazioa sarrera erregistroarekin artxibatuko da eta ikasketaburuak gordeko du.

2. Hautsitako arauak eta aplikatutako hezkuntza neurriak erregistroetatik desagertuko dira neurria betetzen denetik bi urte igaro ondoren.

10. ESKOLETARA BERTARATZEA

Eskola egutegia bat etorriko da Nafarroako Gobernuak urtero ematen dituen arauarekin eta ikastetxeko Eskola Kontseiluak bere eskumenen barnean ezartzen duenarekin. Gaur egun 140 dira finkatuta dauden eskola orduak. Eskoletara bertaratzea nahitaezkoa da.

10.1. Irakasleen ez-agertzeak

Irakasleak agertzen ez badira, ikasleek beren ikasmaitarako material didaktiko berariazkoak dituzte eskura baliabide gelan, ohiko ordutegian. Era berean, ikasketa lanak egiten ahalko dituzte departamentu bakoitzak ikastetxeko webgunean jasota dituen interneteko baliabide didaktikoen bitartez.

HEOK SMS sistema bat du ikasleei eta, ikasle adingabeen kasuan, haien guraso eta tutoreei irakasleak noiz ez diren etorriko eta, orobat, noiz itzuliko diren jakinarazteko.

10.2. Eskoletara bertaratzea eta etengabeko ebaluazioa

Ziurtagiririk lortzen ez den mailetan (oinarrizko 1. mailan eta aurreratuko 1. mailan) eta oinarrizko 2. mailan ikasleak etengabeko ebaluazioaren bidez igaroko dira mailaz. Etengabeko ebaluaziorako eskubidea izateko, ikasleek gutxienez eskola orduen %70era joan beharko dute.

10.3. Eskoletara bertaratzea eta ikaspostuen erreserba

Bertaratu beharreko modalitatean, ikasle guztien eskubide eta betebeharra da eskoletara joatea, eta inoiz ez da zilegi izan borondatezko asistentzia duen sistemarik ezartzea.

A. Lehen hiruhilekoa

14 orduz edo gehiagoz justifikatu gabeko bertaratze hutsegiteak badaude, ikasle ofizialaren izaera galduko da, baina ez azterketa egiteko eskubidea. Hutsik gelditzen diren ikaspostuak beste matrikula batzuekin beteko dira.

Eskoletara bertaratzeko eskubidea mantentzeko, bertaratze hutsegiteak beherago adierazitako irizpideen arabera justifikatzen ahalko dira.

B. Ikasturtea

Ikaspostua hurrengo ikasturterako erreserbatzeko eskubidea izateko, ikasleek gutxienez eskola orduen %70era joan beharko dute.

Ikaspostua erreserbatzeko eskubidea izateko, eskola orduen %30etik gorako ez-etortzeak behar bezala justifikatu beharko dira, ondoko puntuak aipatutako kasuen arabera.

Gainera, hutsegiteen egiaztagiria aurkeztu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izanen da gutxienez eskola egunen %30era joan izatea. Hala ez bada, aurkeztutako egiaztagiria ez dira kontuan hartuko.

10.4. Justifika daitezkeen hutsegiteak eta egiaztagiria

Ondoren aipatzen diren arrazoiengatik gertaturiko bertaratze hutsegiteak justifikatzen ahalko dira, betiere matrikula egin zen unean ezin baziren aurreikusi:

1. Laneko arrazoiengatik:

Egiaztagiria: egiaztagiria, eskumena duen pertsonak sinatua eta enpresak datatua eta zigilatua, non zehazki adieraziko diren bateraezintasuna eragiten duten ordutegia eta datak. Kontratuaren hasiera datak nahitaez matrikulazio dataren ondokoa izan behar du. Profesional autonomoen edo soldatukoak izan arren beren jardura ordutegi finkorik gabe burutzen duten profesionalen kasuan, nahikoa izanen da enpresaren egiaztagirian agertzea zein data eta ordutan ezin izan den eskoletara joan.

Txandaka lan egiten duten langileek inguruabar hori erabiltzen ahalko dute bertaratze hutsegiteak justifikatzeko, nahiz eta egoera hori matrikulazioaren unean aurreikusteko modukoa izan. Horretarako, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

2. Lana hobetzeko ikastaroak, espezializazio ikastaroak, graduondokoak, ikasketa arautuetako lan praktikak, ikasketetako prestakuntza bekak edo antzekoak egiteagatik.

Egiaztagiria: egiaztagiria, dagokion ikastetxeko zuzendariak edo idazkariak sinatua, non zehatz-mehatz agertuko diren jardueraren ordutegia eta datak.

3. Ikaslearen eritasunagatik edo ikaslearen edo haren lehen graduako senide baten ospitaleratzeagatik.

Egiaztagiria: medikuaren egiaztagiria, nahikoa argia, non jasoko den eskoletara joateko ezintasuna ikasleen ospitaleratze, proba mediko, kontsulta, errehabilitazio edo abarregatik.

Lehen mailako senide baten ospitaleratzearen kasuan, ospitaleratzearen egiaztagiria eta alta parteak aurkeztu beharko dira, baita familia liburuaren edo ahaidetasuna justifikatzen duen agiriaren fotokopia ere.

4. Lehen edo bigarren mailako senide baten heriotzagatik.

Egiaztagiria: heriotza ziurtagiria eta ahaidetasuna justifikatzen duen agiria.

5. Bestelakoak: oporrak eskolaldian, ezkontza baimena eta amatasun baxa.

Egiaztagiria: egiaztagiria, eskumena duen pertsonak sinatua, non argi eta garbi agertu behar den bertaratze hutsegitea eragin duen zergatia eta iraupena.

10.5. Egiaztagiria emateko epea eta tokia

Baimendutako bertaratze hutsegiteen kopurua gainditu duten ikasleen zerrenda argitaratu eta biharamunetik 5 laneguneko epean eman beharko dira egiaztagiriak.

Egiaztagiriak emateko epeak ikastetxeko webgunean argitaratuko dira. Bost lanegun izanen dira, ikastetxeko administraritzaren ordutegiaren barnean. Egiaztagiriak administraritzan emanen dira.

Behin egiaztagiri horiek aztertuta, beren hutsegiteak behar bezala justifikatu ez dituzten ikasleen zerrenda argitaratuko da. Aldi berean, epe bat irekiko da izan daitezkeen erreklamazioak aurkezteko. Epe horretatik kanpo ez da erreklamaziorik onartuko.

10.6. Hutsegiteen zenbaketa

Hutsegiteak zenbatzeko epealdia urtekoa izanen da.

Ikasleek berek beren hutsegiteak zenbatzen joan beharko dute, egiaztagiriak aurkeztu nahi badituzte. Ikastetxeak hiru hilean behin guztira zenbat hutsegite egin diren jakinaraziko du ikastetxeko webguneko Erabiltzaileen gunearen bitartez.

11. FAMILIEN PARTE-HARTZEA BEREN SEME-ALABA ADINGABEEN HIZKUNTZAK IKASTEKO PROZESUAN

11.1. Familien inplikazioa eta konpromisoa

Beren seme-alaben heziketaren lehen arduradunak diren aldetik, aitei, amei edo legezko ordezkariari dagokie beharrezko neurriak hartzea, dagokion laguntza eskatzea eta ikastetxearekin lankidetzan aritzea prozesu hezitzailea ahalik eta hobekien burutu dadin. Era berean, beren seme-alabak eskoletara zein programatutako jardueretara bertara daitezen ardurak izanen dute eta ahal duten guztia egingen dute etxean ikas dezaten eta irakasleek agindutako atazak egin ditzaten.

11.2. Aiten, amen edo legezko ordezkarien eskubideak.

1. Aitek, amek edo legezko ordezkariak, beren seme-alaben hezkuntzari dagokionez, uztailearen 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4.1 artikuluan aitortutako eskubideak dituzte.

2. Hezkuntza Departamentuak aurreko puntuan adierazitako eskubideak erabili ahal izatea bermatuko du. Bereziki bermatuko du gurasoek edo legezko ordezkariak beren seme-alaben ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan parte hartzeko duten eskubidea, deusetan galarazi gabe ikastetxeko zuzendaritzari eta irakasleei esleitutako eskumenak. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

a) Ikaskuntza prozesuaren aurrerapenei buruzko informazioa jasotzea.

b) Ikasturtearen hasieratik helburuak, edukiak, ebaluazio prozedurak eta ebaluatu, kalifikatu eta aurrera egiteko irizpideak ezagutzea eta egiten dituzten erreklamazioei buruzko informazioa eta argibideak jasotzea.

c) Ikastetxearen Bizikidetzaren Planaren neurrietatik beraiei dagozkienak ezagutzea, batez ere eskolako bitartekaritza gatazka konpontzeko baliabide gisa erabiltzekoa, eta, halakorik bada, parte hartzea proposatzen diren neurrien eta erabakien diseinuan, eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztea, indarreko araudiari jarraikiz.

11.3. Aiten, amen edo legezko ordezkarien erantzukizunak

1. Aitek, amek edo legezko ordezkariak, beren seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusiak diren aldetik, uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4.2 artikuluan ezarritako eginbeharrak dituzte.

2. Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza arloko administrazioak eta kasuan kasuko ikastetxeak aurreko idatz-zatian adierazitako erantzukizunak betetzen direla begiratuko dute, eta bereziki, honako hauek betetzen direla:

a) Beren seme-alaben hezkuntza prozesuaren bilakaera ezagutzea, ikasketetara animatzea eta errendimendua hobetzeko parte-hartze aktiboa izatea, eta, hala badagokio, portaera batzuk zuzendu behar badira, ikastetxearekin lankidetzan aritzea.

b) Ikastetxearekin zuzeneko eta etengabeko harreman arina izatea eta erraztea.

c) Beren seme-alaben bertaratzea, aprobetxamendua eta parte-hartzea bermatzen dituzten neurriak, baliabide materialak eta baldintzak hartzea.

d) Irakasleen agintea eta ikastetxeko arauak errespetatzea eta beren seme-alabei hori errespetaraztea.

e) Hezkuntza erkidegoko kide guztiek dagozkien eskubide eta eginbeharrak erabat erabili ahal izateko eta errespetua sustatzeko lanean laguntzea.

f) Ikastetxearen berezko izaera ezagutzea eta ikastetxearen hezkuntza proiektua errespetatzea eta seme-alabei errespetaraztea.

12. XEDAPEN GEHIGARRIAK

12.1. Erantzukizun penala

1. Ikastetxeko zuzendaritzak Fiskaltzari jakinaraziko dio arau-hauste penaltzat har daitekeen edozein egintza.

2. Ikastetxe bateko bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren jokaeren ondorioz, Fiskaltzak irekitzen badu Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan aurreikusitako prozedura bat, horrek ez du ekarriko foru dekretuaren 20. artikuluan araututa dagoen ohiko prozedura etetea, bieran egintza berberak aztertzen badira ere.

12.2. Erantzukizun zibila

1. Banaka edo taldeka, nahita edo axolagabekeriagatik, ikastetxeko instalazioetan edo materialetan, edo hezkuntza erkidegokoa den edo haren zerbitzura jarduten duen edozein kideren ondasunetan kalteak eragiten dituzten ikasleak behartuak egonen dira eragindako kaltea konpontzera edo konponketaren kostu ekonomikoa beren gain hartzera, indarreko legedian ezarrita dagoen bezala.

2. Ikastetxearen edo hezkuntza erkidegoko edozein kideren ondasunak lapurtzen dituzten ikasleek lapurtutakoa itzuli beharko dute edo itzulketaren kostu ekonomikoa beren gain hartu, indarreko legedian ezarrita dagoen bezala, eta ikastetxean berean egin litekeen zuzenketa deusetan galarazi gabe.

3. Ikaslea adingabea bada, haren gurasoak edo legezko ordezkariak erantzule zibilak izanen dira, legeetan ezarritakoaren arabera.

13. EBALUAZIOA

Ikastetxe honetako bizikidetza egoera ebaluatzeko prozedura hainbat adierazleren bitartez zehaztuko da. Adierazle horiek aztertuko dira zuzendaritza taldeak bizikidetzaren arloko gai zehatz bat landu beharra dagoela ikusten duenean. Emaitzak zein lortutako ondorioak urteko memorian jasoko dira.

Honako alderdi hauetan zehaztuko dira:

Bizikidetzaren kalitatea, ikasleek ebaluaturik

- a) Oro har, pozik egotea ikastetxearekin eta eskolako harremanekin
- b) Ikasteko toki modura hartuz, ikastetxearen parte dela sentitzea
- c) Ikasleen arteko lankidetzatza
- d) Irakasleekiko harremanaren kalitatea eta haren eragina
- e) Ikastetxea erkidego modura

Bizikidetzaren kalitatea, irakasleek ebaluaturik

- a) Bizikidetzaren kalitate globala ikastetxean
- b) Irakasleen eta langileen arteko harremanen kalitate globala
- c) Errealizazio pertsonala
- d) Ikastetxeko partaide dela sentitzea
- e) Irakasleekiko harremanaren kalitatea eta haien eragina
- f) Irakasleen arteko integrazioa eta lankidetzatza
- g) Ikastetxea erkidego modura

Bizikidetzatza eraiki eta hobetzeko baldintzak, ikasleek ebaluaturik

- a) Arauen kalitatea eta gatazkak ebazteko moduak
- b) Ikasgelan emandako tratu inklusiboa eta motibatzailea
- c) Kalitatezko bizikidetzatza eraikitzezko trebetasunak

Bizikidetzatza eraiki eta hobetzeko baldintzak, irakasleek ebaluaturik

- a) Arauen kalitatea eta gatazkak ebazteko modua
- b) Eztabaida erabiltzea
- c) Irakaskuntza inklusiboa
- d) Irakaskuntza motibatzailea eta disrupzioaren kontrola ikasgelan
- e) Ikasleak ikasten ahalegintzea eta interesa izatea

Xedapen iragankorra

Araudi hau Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean aplikatuko da, 2012-2013 ikasturtean egin zen azken Eskola Kontseiluan onetsi zenetik.

Xedapen gehigarri bakarra

Araudi honek, gaztelaniazko edizioan, kide anitzeko organoetako karguez eta beste batzuez (gaztelaniaz: Presidente del Consejo Escolar, Director, Secretario, Jefe de Estudios, Vicedirector, Jefe de Departamento, Coordinador, etab.) ari denean adierazpen ekonomiagatik genero gramatikal maskulinoko izenak erabiltzen dituen kasu guztietan ulertu behar da postu horiek orokorrean hartzen dituela hizpide, bai emakumezkoek bai gizonezkoek betetzen dituztela ere, erabateko berdintasunean lege ondorioetarako. Emakume bat bada kargua betetzen duena, genero gramatikal femeninoa erabiliko da izendatzeko, kasu bakoitzari dagokion moduan (gaztelaniaz: Presidenta del Consejo Escolar, Directora, Secretaria, Jefa de Estudios, Vicedirectora, Jefa de Departamento, Coordinadora, etab.).